

Goierri tarra

355. zenbakia 2009ko otsailak 13



Haragiaren salmenta-zuzena

BASERRIARI EUSTEKO BIDE BERRIAK URRATUZ

DR. JOSE
GISASOLA

3998 Elkargokidea

OSTEOPATIAN MEDIKUA



Andramari, 13 Ezk. Solairu-arte / 20200 Beasain / T 629 45 20 53

BIZKARREKO MINAREN TRATAMENDU NATURALA
Lunbalgia, Hernia Diskala, Ziatika, Migraina, Zefalea, Bertigoa, Artrosia, Buruhezur-aurpegiko mina, ATM



berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeok, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:


*I. Fdez Or naburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.*

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

BERTSOTAN

Jose Insaustik 1956ko otsailari jarriak

Mila bederatzireun berrogei ta amaseiko otsailla, egia esan bear badegu pasa degu otzak illa. Eman du naiko lana, gaizki pasatzen dana, ainbesteko egun-sailla; motxa izan arren ill au izan da igarotzeko nahiko zailla.

Eguneroko elur kaskarra ta gauero izotza, dar-dar jartzen zun ipar-aizea, gau ta egun beti otza. Len bagenbiltzan justu, onek geiago ustu eta tristetu biotza; olako batzuk badira, laister baserrian eriotza.

Euskadin nundik azaldu dira olako egoaldiak? Uste det aurten berdin zirala Siberia eta biak. Egun guztiak illun, eguzki gabe iñun, ta gauak garbi-garbia; igartu dira piñuak eta usteldu ditu arbiak.

Jose Insausti segurarraren 'Beti bertsoa buruan' liburutik. 'Otsailleko eguraldi bildurgarriari' 10 bertso sortatik, hiru bertso.

Doinua: Iparragirre abilla dala...

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbalde plaza, 7 - behea

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albuja

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:


Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

- 4. Iritzia:** Ion Telleria.
- 5. Ingurugiro txokoa:** Gure ibaietako karramarro mehatxatua.
- 6. Euskara txukuntzen:** Ze hitz bai... eta ze hitz ez! (V)
- 8. Erreportajea:** Korrika 16-ari ongietorria prestatzen.
- 12. Erreportajea:** Txekor haragiaren salmenta-zuzena.
- 16. Kirola:** Xabier Muriel prestatzaile fisikoa.
- 20. Garai batean...:** Ataungo Aita Hilario, Txilen Dotrina Irakasten.
- 24. Non zer.**
- 26. Argazki zaharra.**



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Ion Telleria

Azken lau urteetan, PNVk eta PSOEek elkarrekin onartu dituzte “egiazko politika” deitzen dutena zehazten duten aurrekontuak, EAEkoak eta Estatukoak.

Martxoaren 2ko argazkia

Ezker Abertzalearen legez kanporatzeak egungo egoera sozial eta politiko makurra gaindiezin bilakatzen du hauteskunderen bidez; aukera bakartzat PNV ala PSOE, Ibarretxe ala Lopez kokatuz.

Azken lau urteetan, ordea, PNVk eta PSOEek elkarrekin onartu dituzte “egiazko politika” deitzen dutena zehazten duten aurrekontuak, EAEkoak eta Estatukoak. “Estrategikoak” deitzen dituzten proiektuetan eskutik aritu dira (AHT, superportuak, errauskailuak...); “Krisi ekonomikoari” aurre egiteko “neurrietan” ere bat etorri dira (enpresariei babesa, kutxa eta bankuek behar izan dutenean laguntzak, ERE-en onarpena...); elkarrekin blokeatu dute hizkuntza ereduen (A, B, D...) legea aldatzeko Tontxu Camposen sailak egindako erreforma proposamena, “Euskadi” futbol selekzio autonomikoaren defentsa sutsua egin dute elkarrekin... Eta elkarrekin ari dira Ezker Abertzaleari apartheidia aplikatzen (Azpeitia, Ondarru,...).

Gauza asko eta garrantzitsuak egin dituzte elkarrekin. Agian garrantzitsuena, baina frogatzen zailena (oraingoz esango dugu, nazioarteko ikuskariek badituztelako agiriak) azken negoziazio prozesuan erakutsi duten bateratasuna.

Beraz, horrenbeste gauza elkarrekin egin eta gero orain elkarren aurka daude? Horrela bada, PNVk norekin lortuko du Gasteizko gobernua mantentzea? Orain arteko hirukoaren (PNV + EA + EB) formulak ez dirudi bide askorik duenik; batek hauteskunderetara krisi sakonean heldu delako, barne kontraesanak aregotuta eta elkarrekin gobernatzeko ezintasunez (Madraren lurzorua legea, Camposen hizkuntza ereduen legea, estatutu erreformekiko EA-k azaldu duen kontraktasuna...); bestetik, azken hauteskunderetako joera ikusirik ez dirudielako behar adina indar

izango dutenik denak elkartuta ere. Beraz?

PSOEren eta PNVren arteko kontraktasun bakarra, eta PNV bozkatzeko milaka herritarrek duten arrazoia, Euskal Herriaren nazio aldarrikapenekiko bataren eta bestearen arrazoia dira. Baina Inigo Urkulluk (PNV) aldarrikapen horiek “kontzertu politikoa” terminora mugatu ditu; eta zer da hori? Estatutu berri bat Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako. PSOEek, berriz, “euskal herritar denak kabituko diren Euskadi berria” aipatu du; eta zer da hori? “Elkarbizitzarako tratua berria” deitzen dutena; Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako tratua berria, beraz.

Ondorioz, uste dut:

- 1.- PSOEek Nafarroan UPNrekin lortu duen akordio bera nahi du EAEn PNVrekin; orain 30 urte bezala.
- 2.- PNV eta PSOEren argazki bateratu horretan Ibarretxe ezin da lehendakari izan; beraz, Ibarretxe ez da lehendakari izango; Lopez izango da, edo PNVko besteren bat.
- 3.- Ezker Abertzalea behar da alternatiba soberanista bat eraikitzekotan (Nafarroan ikusi da NaBai-en esperientziaren porrota eta gero; Ipar Euskal Herrian ikusi da EH Bai formularen eta EAEn ari gara ikusten)
- 4.- PNV + PSOE argazkiak DENA bere horretan mantentzea esan nahi du.

Azken ondorio hori zilegi da? Agian; baina PSOEri, eta bereziki PNVri, bozkaturiko diozuenok hori nahi duzue? Ez dut uste.

Baten batek esango du: “ados, demagun arrazoi dukela, beraz, zein duk alternatiba?”. Eta erantzun beharko dut, zoritxarrez, oraindik ez dakidala; baina ziur nagorela horrenbeste gauzari aurre egiteko gai izan den herri bat ez duela hilko bi korbatadunen argazki batek; eta oraindik, martxoaren 2ko argazki hori aldatzeko garaiz gaudela.

AMEBI

Sagardoa txotxetik
 Sagardotegia
 Zubierreka,9 © 943 16 25 23 LAZKAO

IÑAKI ARIN
aseguruak

 943 888 702 Oriako pasealekua, 20 BEASAIN

Gure ibaietako karramarro mehatxatua

Ibai-karramarro arrunta ohi-koa omen zen Euskal Herri-ko ibaietan. Gaur egun iturburuetako erreka garbietara mugatua dagoen karramarroa, duela 20 urte erreka garbietako edozein harriren azpian agertzen zen. Ibai-karramarro arruntak ibai eta erreketako ekosisteman paper garrantzitsua betetzen zuen, izan ere zabor-biltzaila deitzen zaio edozer gauzaz elikatzen delako eta ibai ondoak garbitzen dituelako.

Ibai-karramarroaren desagerpenaren arrazoiak ugariak dira: habitaten eraldaketa giza-jarduera desberdinekin, elikagai bezala erabili izana eta espezie exotikoak sartu izana.

Ibai-karramarro arruntari espezie exotikoak sartzeak kalte handia egin zion, Ipar Amerikatik ekarritako karramarro gorriak hain zuzen.

Zer dira espezie exotikoak?

Espezie exotikoa jatorriz ingurukoa ez dena da. Adibidez karramarro gorria, nahiz eta egun gure ibai eta hezegunetan aurki dezakegun, Ipar Amerikako espeziea da jatorriz eta ondorioz exotikoa kontsideratzen da hemen. Gainera espezie exotiko batzuk inbaditzaileak dira, hau da inguruan azkar hedatzen dira. Adibidez ibai-karramarro arruntak 70 arrautza jartzen ditu, karramarro gorriak aldiz, 600 arrautza jartzen ditu. Nahiz eta askok ez diren heldutasunera ailegatuko, karrama-



ro gorria azkarrago ugaltzen da eta ingurua inbaditu egiten du.

Ipar Amerikako karramarroa penintsulako ibaietan nahita sartu zuten, bertako ibai-karramarroaren populazioa, gehiegizko arrantzagatik eta habitataren suntsipenagatik, txikitu zenean. Eta hori izan zen bertakoarentzako errematea. Izan ere, karramarro amerikarra gaixotasun bat eragiten duen onddo baten eramailea da, eta nahiz eta onddo honek ez dion karramarro amerikarrari kalterik egiten, karramarro arrunta aldiz, gaixotu eta hil egiten du.

Zer egin daiteke?

Ipar Amerikako karramarroaren kasuan birpopulaketa gehiagorik ez egitea da lehenengo pausua. Gero ikerketak egin beharke zirena gure ibaietan dauden karramarro espezie guztien banaketa, ugaritasuna eta osasun-egoera ezagutzeko.

Ondoren ibai-arroen egoera ekologikoaren kontserbazioa edota berreskurapena bultzatu behar da eta gaixotasunarik gabeko uretan bertako karramarroa sartzeko planifikazioa egin eta azkenik, Administrazio ezberdinen arteko elkarlana alor horretan ere bultzatu behar da.

Karramarro arrunta berreskuratzea ez da ezinezkoa inondik ere, baina oraindik ez da behar adina indarrik egin horretarako. Europako hainbat lekutan izurritea kontrolatzea eta gainditzea lortzen ari da, onddoak ezin baitu ostalaririk gabe bat edo bi egunetz baino gehiago bizi.

Argi geratuko zenez, ez da erraza izango arazo korapilatsu hau epe motzera konpontzea eta garai bateko karramarro arruntaren populazioetara berriro itzultzea. Ea denon ahaleginarekin, animalia dotore hau berreskuratzen dugun. Zaila bai, baina ez ezinezkoa!

JAKIN BEHARREKOAK

“Programa de Accion Nacional de Lucha contra la Desertificacion” datuen arabera, Espainiako lurraldearen % 37 basamortutzeko arrisku oso larrian edo larrian dago. Murcia, Aragoi, Kanariar uharteak, eta hegoaldea dira arrisku larrian dauden zonaldeak.

“Programa de Hogares Verdes” Ingurumen hezkuntzako zentru nazionalak (CENEAM) martxan jarri zuenetik orain dela urtebete, Segoviako 232 etxebizitzetan ur kontsumoa %14,5 eta CO2 isuriak %6 murriztea lortu dute. Ekintzaren ardatza familiei gaiarekiko oinarritzko prestakuntza, material didaktikoa, arreta eta bilerak izan dira. Ekintza honen materiala CENEAM daude. www.mma.es/ceneam

Atun gorriarentzako babestokia. WWW/Adena, Greenpeace, Ecologistas en Accion eta GOB Balear taldeak pozik hartu dute Kongresuan onartu den erabakia. Honek Balear uharteetan Atun gorriarentzat babestokia sortzeko lehen pausoa da.

“Urlehorrak eta narrastrak: aniztasuna eta kolorea.” Erakusketa ‘Casa de la dehesa de Olarizu’ Gasteiz. Aranzadi eta Ramon Arambarri, argazkilari eta naturzalea, elkarlanean erakusketa hau egiteko. Martxoak 1 arte zabalik egongo da.

Ze hitz bai... eta ze hitz ez! (V)

(Euskara batuan)

Maizpide
euskaltegia

Euskara batuan zuzenak izan ez arren, badira zenbait hitz, hainbat arrazoi direla medio, behin eta berrero erabiltzen ditugunak. Zein hitzez ari garen jakin dezazuen, erreparatu eskuineko zutabeari (ezkerrekoan forma zuzena agertzen da):

✓ Zuzen	✗ Oker
Txita	Txitoa
Harrezkero	Harez gero
Ur-hegazkina	Uregazkina
Kare-haitza	Karaitza
Kirurgia	Zirujia
Kuartela	Koartela
Uhartea	Ugartea
Diru-zorroa	Kartera
Sagua	Xagua
Aho-zapia	Zerbieta, serbilleta
Txistua	Ziztua
Ontzia	Untzia
Garrasia	Karraxia
Ostia	Hostia
Suspertu	Zuzpeltu
Kiskali	Kixkali
Zizarea	Txixxarea
Txakurkumea	Zakurkumea
Eskorga	Karretila
Xehatu	Xehetu
Zabalgunea	Zabalunea
Gidabaimena	Gidakarneta
Hurkoa	Urkoa
Kanpadenda	Kanpaina denda
Zapata-denda	Zapategia
Jasmina	Jazmina
Habeartea	Zutoitartea
Uraza	Urza
Sarraila	Zerraila
Ziurtagiria	Zertifikatua

Ibaia	Hibaia
Ortzia	Urtzia
Ziza	Xixa
Zuria	Txuria
Ostu	Ohostu
Kareharria	Kararria
Ingurabidea	Zirkunbalazioa
Auzoa	Hauzoa
Ohitu	Ohituratu
Bularretakoa	Sujetadorea
Ingudea	Txingudea
Saguzarra	Xaguzarra
Izozmendia	Izeberra
Arrautza	Arraultza, arraultz, arrautz
Heretikoa	Herexea, herejea
Lehoinabarra	Leopardoa
Zuloa	Txuloa
Harakina	Karnizeroa
Umatu	Umetu
Zazpiehun	Zazpirehun
Txakurtegia	Zakurtegia
Koaderno	Kuaderno
Hurritza	Urritza
Imajina	Imagina
Nortasun-agiria	Karneta
Tiradera	Kajoia
Simaurra	Ximaurra, zimaurra
Habia	Kabia
Zirimiria	Xirimiria
Ikuskizunak	Karteldegia (cartelera)
Aho-artatzailea	Hortz-medikua
Ur-jauzia	Urjauzia
Ildoa	Hildoa
Jogurta	Yogurra
Zerbitzatu	Serbitu, zerbitu
Txirula	Xirula

Zuzendu, behar izanez gero...

1. Anttoniri zirujia estetikoa egin ziotenetik sujetadorea ez zaio ondo geratzen eta, gainera, txuloa du ezkerreko bularrean.
2. Gure auzoko karnizeroak zazpirehun xixa marraztu dizkio kuadernoan Aratzi.
3. Txitoak zera esan omen zion xaguxarrari, oso gustura jaten zituela amak kabira ekarritako txixxarea txuriak.
4. Zirimiriak bustitako simaurra eskorgan nola eramaten zuten kontatu zidan aho-artatzaileak.


OHARRA: lehenengoan, *Anttoniri kirurgia estetikoa egin ziotenetik bularretakoa ez zaio ondo geratzen eta, gainera, zuloa du ezkerreko bularrean* behar du; bigarrenean, *Gure auzoko barakinak zazpiehun ziza marraztu dizkio koadernoan Aratzi*; hirugarrenengoan, *Txitek zera esan omen zion saguzarrari, oso gustura jaten zituela amak habiara ekarritako zizare zuriak*; laugarrena zuzena da.

Nire ontziak izozmendia jo zuelakoan nengoen, baina badirudi uhartea dela...

Heretiko honek ez dit, bada, ortziarekin nuen harreman goxoa eten...



A ze nolako "ur-hegazkina"!



www.iragarki**laburrak**.com
uztarria.iragarki**laburrak**.com
txintzarri.iragarki**laburrak**.com
otamotz.iragarki**laburrak**.com
elgoibarren.iragarki**laburrak**.com
soraluze.iragarki**laburrak**.com
bidasoamedia.iragarki**laburrak**.com

ukberri.iragarki**laburrak**.com
oarsoaldeko**hitza**.iragarki**laburrak**.com
tolosaldeko**hitza**.iragarki**laburrak**.com
11barri.iragarki**laburrak**.com
uro**la**-kostako**hitza**.iragarki**laburrak**.com
irutxulo**ko**hitza.iragarki**laburrak**.com
busturialdeko**hitza**.iragarki**laburrak**.com

milaka bisita, egunero

saltzeko
erosteko
eskaintzeko
eskatzeko
aurkitzeko

...

zure-azoka

Erregistratu zaitez
eta jarri zure iragarkia **webgunean:**

norbanakoak
doan

enpresak
leku eskusiboa

Jarri zure iragarkia!

Gainera, **ostiralero** paperezko edizioa
100.000aleko zabalkundearekin.



Korrika 16-ari ongietorria prestatzen

Apirilaren 2a, agendan apuntatzeko eguna dugu: Korrika 16a, Goierri-
ra iritsiko den eguna baita. Goizeko 3,30ak aldera, Lizarrustin ongi etorria egin eta 9,30ak aldean Legorretan agurtuko dugu. AEK-ko arduradunak eta goierri-tarrak ekintza ugari ari dira antolatzen.

Jose Manuel Arias kataluniarra da Goierri-ko Korrika arduraduna. Euskarara hurbildu direnak omenduko ditu aurten Korrikak, tartean, Jose Manuel Arias bera, duela hiru urte Kataluniatik Goierri-
ra etorri eta euskara ikasi baitu. Ongi etorri Korrikara!

Iñauti
Hertz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbk. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28

MUJIKA 19

MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

☎ 943 889 296
Faxa: 943 887 952
N-1 errep. 419 Kma
BEASAIN

Bikar, S. A.

Tuteratik Gasteiza izango da Korrika 16, martxoaren 2tik apirilaren 5era bitartean. Apirilaren 2an iritsiko da Goierriara. 6 ordu eta 57 kilometro egingo ditu Goierriin. Lizarrustitik barrena, goizeko 3,30etan sartuko da eta goizeko 9,30ak aldean joango da Legorretatik. Lizarrustitik Legorretaraino Ataun, Lazkao, Olaberria, Idiazabal, Segura, Zerain, Mutiloa, Ormaiztegi, Beasain, Ordizia, Arama, Itsasondo eta Legorreta herrietatik pasatuko da.

Urtarrilarekin batera jo eta ke ari dira lanean AEK-n. Jose Manuel Arias da Goierriin, Korrika arduraduna. Korrika 16-ari behar bezalako ongi etorria egiteko eta ahalik eta goierritar gehienek bertan parte hartzeko, Goierriko herri gehienetan Korrika batzordeak sortu dira. "Harrera ona izaten ari da. Jendea lanean hasita dago", adierazi du Jose Manuel Ariasek.

Herrietan aurkezpen batzarrak egin ondoren, Batzordeak sortu dira herrietan Korrikaren inguruko ekintzak antolatzeko. "Korrikan parte hartzeko ilusioa piztu behar dugu", adierazi



1989. urtean Korrika 6ren omenaldia jaso zuen Joxe Migel Barandiaranek, 100 urte bete zituen urtean. Harrezkero Korrika ez da Ataundik pasatu.

Ataundarren eskaera beteta

20 urte dira Korrika Ataundik pasatu ez dela. Ataundarrek firma bilketa egin eta AEK-ri eskaria egin diote, Ataundik Korrika pasatzeko. Eta lortu dute eskaera betetzea: apirilaren 2an, Goierriin, Ataundik barrena sartuko baita Korrika. "Ataunen oso motibatuta daude. Abenduan hasi ziren Korrika antolatzen", dio Jose Manuel Ariasek. Beste eskaera bat ere egin a omen daukate ataundarrek: Korrikaren edizioen bat Ataunen hasia.

du Jose Manuel Arias, Goierriko Korrika arduradunak. Kuestazioak, ekimen ezberdinak, afariak, arropa salmenta... denetik egingo da apirilaren 2a bitartean Goierriko ezberdinetan. "Herriko ekimenekin lotu nahi da Korrika", gaineratu du.

Korrikaren aitzakian, urtero eskualde mailako afaria egiten da eta aurten ere izango da. Eguna eta lekua jarrita daude dagoeneko: martxoaren 27an, Beasainen. Ohi bezala, eskualdeko elkarte gastronomikoek prestatuko dute afaria,

lehiaketarako prestatzen duten janariarekin.

Ongi etorri!

Ongi etorri! da Korrika 16ren lema. "Euskaldunok ongietorria egiten diegu gure herrira, gure etxera, gure artera datozen lagunei.

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42001

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

over Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

ZEGAMA
OKINDEGIA
Eskuz egindako ozi naturala
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:
Beasain: Oskarbi, Osiña, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegi:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak, Centro 100. **Urretxu:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.

AEK-k berdin egin nahi du Korrika 16rekin: Ongi Etorri! handi bat luzatu nahi die euskararen berreskurapenean lagundu behar duten erakunde guztiei, euskalgintzan dabilzan guztiei, euskaltzale guztiei, euskaldunei eta euskaldundu nahi duten guztiei, bertokoei eta kanpotik datozenei. Ongi etorri Korrikara! Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira! Ongi etorri euskaraz gozatzeko, lan egiteko, maitatzeko, saltzeko eta erosteko, negar egiteko, jolasteko... hautua egin dugunon herrira! Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon artera!”.

Jose Manuel Ariasek zehaztu duenez, erabilpena da euskararen gakoa eta euskarara hurbiltzen direnek laguntza behar dute. “Erabilpena da kontua. Hitz egiten ez bada, akabo. Ikasi nahi dutenentzako oso inportantea da euskaldunen laguntza, praktikatzeko. Oso inportantea da euskal giroa edukitzea. Bestela oso zaila da. Ikasteko hitz egin behar da”.

Omenduak

Milaka eta milaka izango dira Korrika 16-aren omenenduak. Tartean dago, Jose Manuel Arias bera, euskararen herrira etorri eta euskarara hurbildu delako. “Urtetan zehar ehunka mila izan dira Euskal Herrira lan bila, bizi-modu hobe baten bila edo bizi ahal izateko leku bila,



Laguntzeko era ezberdinak

Arropa salmenta

Beasainen, Kale Nagusiko 12. zenbakian, Herri Dendan, Korrikako materiala salgai egongo da, ostiraletan eta larunbatetan, 18:00etatik 20:30era.

Korrika laguntzailea

12 euroren truke, Korrika Laguntzaileak, pin bat jasoko du, eta horrekin batera, deskontu txartel bat. Euskal Herriko hainbat dendetan beherapenak lor daitezke. Goierriren kasuan, Eroski Bidaiak, Vicuña Sport, Solozabal autoeskolan eta Larrañaga Optikan daude beherapenak Korrika Laguntzailearekin.

bestarik gabe, bertaratu diren familiak. Eta horien guztien artean, hainbestek eta hainbestek, euskal herritarron ongietorria ongi baino hobeto hartuz eta ulertuz, ekarpen goraiagarria egin diote gure hizkuntzari. Euskal Herrira heldu, euskara ikasi eta erabili, umeei irakatsi, gure kulturaz goza-

tu, berari ekarpen euskalduna egin, eta belaunaldiz belaunaldi gure hizkuntza transmititu duten milaka familia horiek izan nahi ditu gogoan Korrika 16k aurten go omenaldia gauzatzeko. Omenaldi hau bi ardatz nagusi kontuan harturik planteatu nahi dugu: batetik, egin duten ekarpenagatik

gure eskerrik zintzoena eman nahi diegu; bestetik, beraien guztien ekarpena eta konpromisoa azaleratu nahi dugu, kanpotik datozen familientzako eta bertan jaioetako eta hazitako familia oraindik ez euskaldunentzako eredu izan daitezzen”.

PREST
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

UNIBERTSITATEA BIZITZEKO PREST!

ATE IREKIAK

etorriko zarela jakinarazi!

www.mondragon.edu/prest

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

OTSAILAK 26 - 17:30 osteguna **AULA MAGNA ORDIZIA**

Tel.: 943 88 00 62 // eurkia@goierrieskola.org

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

OTSAILAK 21 - 10:00-13:00 larunbata **AULA MAGNA IRUN**

Tel.: 943 63 91 29 // ioiartzabal@bidasoa.eteo.mondragon.edu

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

OTSAILAK 19 - 18:00 osteguna **AULA MAGNA ESKORIATZA**

Tel.: 943 71 41 57 // sarrera@huhezi.mondragon.edu

Jose Manuel Arias, duela hiru urte etorri zen Goierriera

Kataluniatik euskararen mundura

Goierriera etorri aurretik ezagutzen al zenuen Korrika?

Ez. Maizpideren izenean Korrikaren lekukoa eraman nuen duela bi urte Josek. "Flipatuta" nengoen. Lehenengo aldia izan. Orduan ezagutu nuen Korrika. Hunkigarria izan zen.

Zer sentitu zenuen?

Poz handia. Hainbeste jende korrika eta lekukoa eskuetan...

Eta orain Korrika antolatzen.

Esan zidatenean, ez nuen sinisten. Ziur zaudete? Ni? Gai izango naiz hori egiteko?

Zuretzako ohorea izango da.

Ohorea eta erronka handi bat. Niretzako aukera ezin hobea da euskara ikasteko.

Duela 3 urte etorri zinen Goierriera eta 3 urtean, euskara ikasi duzu.

Beno, ikasten ari naiz. Menperatzeko urte asko behar dira. Baina nire helburua behintzat zen, jende-ari ulertzea. Euskaraz hitz egiteko bere eskubidea errespetatzea. Ordiziako AEKn hasi nintzen euskara ikasten. Gero Maizpidera joan nintzen, eguerdiko klaseetara. Pasa den udan, autoikaskuntzako ikastaro bat egin nuen AEKn, pixka bat pilak jartzeko. Eta pasa den abenduan, ikastaro trinkoa egin nuen Maizpiden.

Ulertzea lortu duzu, eta zuri euskaraz ulertzea ere bai.

Bai, pozik nago.

Zaila dela esaten da.

Bai, zaila da baina gogoa jarri behar da eta laguntzarekin posible da. Euskara berezia da, egitura ezberdin bat baitauka. Erabat ezberdina. Ikasteko, euskaraz



Jose Manuel Arias, Goierriko Korrika arduraduna.

pentsatu behar da pixka bat. Erdaraz pentsatzen baldin baduzu, ezin da. Hasieran asko kostatzen da.

Jende asko dago hemen bertakoa izan eta euskararik ez dakiena. Arraroa egin al zaizu?

Bai. Arraroena honakoa egin zait: bere aitona-amonak euskaldunak izan eta beraiek euskaraz ez jakitea. Hori da gehiena harritzen nauena. Katalunian, frankismo garaian, hizkuntzaren transmisioa ez zen moztu. Etxeetan jendeak jarraitzen zuen katalanez hitz egiten. Baina hemen, eten egin zen eta horrek harritzen nau. Nolako zapalkuntza edo errepresioa egon zen hori gertatzeko. Nik argi daukat, galdutakoa

berreskuratu egin behar dela. Hori erakundeek eta administrazioek kontuan hartu beharko lukete pixka bat.

Kataluniatik etorri zinean zer espero zenuen, hemen denak euskaraz egiten genuela edo errealtatea ezagutzen zenuen?

Ez nuen ezagutzen, baina banekien Goierri, egoera berezia zegoela, euskara dezente hitz egiten da, beste leku batzuetan gehiago.

Kataluniara joaten garen, katalana asko entzuten da.

Lekuaren arabera. Nire herrian, Casteldefellsen, erdaldun asko daude, barnealdean katalanez dezente hitz egiten da. Ni etorkinen semea naiz, gurasoak an-

daluziarrak dira. Nik txikitak ikasi nuen katalana eta lagunekin katalanez hitz egiten dut. Portugesa ere badakit. Portugalen urtebete egin nuen eta portugesez ikasi nuen. Zein polita den, herri batean egon eta jendea ulertzea. Portugesarekin hori gertatu zitzaidan.

Nolatan etorri zinen Goierriera?

Nekazal teknikaria ikasi nuen Bartzelonan. Ikasketetako lagun bat Atauna etorri zen bizitzera. Baserri bat erosi zuen. Baserrira bizitzera gonbidatu ninduen eta onartu egin nuen. Nire asmoa zen ogi labe bat egitea, momentu hartan Katalunian ogia egiten ari bainintzen. Leku bat behar nuen, labe handiago bat edukitzeko.

Gero beste baserri batera joan nintzen bizitzera, Aldaba Zaharrera: baratzean, ogia egiten eta eraikuntzan lan egiten aritu nintzen. Orain Lazkaon bizi naiz, kalean. Pasa den udan, Mutiloan egon nintzen, herriko txukunketak egiten.

Euskara praktikatzeko herri onak aukeratu dituzu.

Bai, beti lantokietan aukera izan dut euskaraz hitz egiteko. Gozada bat da.

Baserri mundua nola dago?

Zaila, etekin gutxi eta lan ikaragarria. Etekinak ondo banatu behar dira, baserri-tarrak oso gutxi ateratzen baitu, tartean gelditzen da diru guztia. Baina arrisku guztia, baserriarrentzako da.

Egoera ideala zein izango litzateke, hemen, Katalunian...?

Hemen, baserritxo batean, lasai-lasai. Baratze bat... Ni baratze batekin pozik.

Alberto Irastortza olaberritarrek txekor haragia saltzen du:

“Salmenta duina da baserriarekin jarraitzeko bide bakarra”




Bide berria urratzera ausartu da Olaberriko Bildotxaga baserriko Alberto Irastortza: berak hazitako txekorren haragia, berak salduko du, zuzenean, inongo bitartekaririk gabe. Sekto-rearen egoera oso-oso larria dela dio.

“Kontsumitzen den haragiaren %27a bakarrik produzitzen dugu hemen eta ezin saldurik gabiltza”, dio olaberritarrek. Kontsumitzaileok zeresan handia omen daukagu, baserriaren etorkizunean, bertakoa kontsumituz.

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76



☎-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA

AUSO EGI

ERREFORMAK

- ✘ Tximini eta ekonomikak
- ✘ Berogailuak
- ✘ Iturgintza
- ✘ Zeramika erakusketa
- ✘ Bainuko altzariak

Alberto Irastorzak haragitarako behiak ditu. Azkenaldian harategietan ezin saldu dabil. Bide horretatik gainera, oso etekin gutxi ateratzen du: “4,50 eurotan saltzen dut kiloa eta harategietan 15 euroren inguruan saltzen dute”, salatu du. Horretaz gain, beste salaketa bat ere egin du olaberritarrek: “Goierriko haragia Goierri bertan oso gutxi saltzen da. Ni Arrasaten aldean aritu izan naiz saltzen eta aurretik Bilbon ere bai. Kanpotik etortzen da gehiena”.

Egoera larria bizi du haragiaren sektoreak. “Bate-tik, 2006. urtearen azken aldera, biodieselaren ondorioz, zereala igo zenez, pentsuak ere gora egin zuten. %30a edo gehiago igo zen. Bestetik, haragiaren prezioak mantendu edo behera egin zuten, kanpotik haragi asko hasi baitzen sartzen. Espainia aldean, batzuk ezin zuten lanean ja-

rraitu eta txekor granjak husten hasi ziren. Zenbat eta denbora gutxiago egon granjan, orduan eta diru gutxiago galtzen zutela esan zuten. Orduan, prezioak jaitsi egin ziren. Baina kontsu-

tuak biltzen hasi ginen. Produkzio kostea, lau eurokoa da; hau da, txekor bat gizontzea, kiloko 4 –4,5 euro kostatzen da. Beraz, ez dugu etekinik ateratzen. Horrela ez dago jarraitzerik.

zentrazioa, hiltegi txikiak itxi, handiak egin, dena monopolizatu, azalera handiko saltokiak...”.

Salmenta-zuzena

Haragiaren salmentarekin lotutako esperientziak ezagutzeko Zuberoara egin zuten lehenengo bidaiak. “Maulera joan ginen, salmenta-zuzeneko esperientziaren bat bazegoela eta. Hiltegi txiki bat bisitatu genuen, baserritar batzuk ere bai... eta han ikusi genuen salmenta-zuzeneko esperientzia. Han garbi esan ziguten: salmeta-zuzena edo bestela ezin gara bizi. Hortik animatu ginen hemen ere horrelako zerbait egitera”, adierazi du olaberritarrek.

Bizkaian ere ibili da Alberto Irastortza: “Elorrión, Aitor Sorozabal ezagutu nuen. Harremanetan jarri nintzen. Berak 15 urtean daramatza salmenta-zuzenarekin eta gero eta eskari

Goierri jende gehiago ere badabil bide honekin hasi nahian, baina hasten lehena, Alberto Irastortza izan da.

mitzaileei igo egin zitzaizen. Fenomeno kuriozosa izan zen: baserritarrei pentsua igo eta haragia jaitsi; eta gure produktua, merkatuan, zerbait igo”.

Argi dauka Alberto Irastortzak: “horrela ezin da segi! Gure gestio zentroan da-

EHNE sindikatuan haragi sailekoak biltzen gara eta irtenbideak bilatu behar genuela erabaki genuen, beti Administrazioari begira egon gabe. Beti negarrez aritzen gara baina Administrazioetik jai daukagu. Berak bere modeloa dauka: kon-

Bost kiloko paketeak

Baserrieguneetan, txekor haragia izozteko ohitura zabaldua dago. Horretarako ordea, izozkailu handiak behar izaten dira. Alberto Irastortza, etxeko izozkailu arruntetan sartzeko aukera ematen duen eskaintzarekin dator: bost kiloko paketeak prestatuko ditu olaberritarrek. “Jende askok arkoirik ez dauka etxean eta nahiago du comby normaletan sartu litekeena”, dio Irastortzak. “Jende askok gainera diru pilo bat ere ez du aurreratu nahi. Baina prezioari baino gehiago, kalitateari begiratzen dio. Naturala nahi du”, gaineratu du.

Elorrioko eta Mauleko esperientziarekin jarraituz, Alberto Irastortzak bost kiloko paketeak prestatuko ditu eta 60 eurotan saldu. Gutxi gora behera 600 gramoko 8 poltsa dira: txuleta, xerrak (primerakoak, segundakoak eta extrak), zankarroia, egostekoa, xehetua eta saiheskia.

Bezero zerrenda osatzen ari da olaberritarra. Interesa duenak, bi bide ditu Irastortzarekin harremanetan jartzeko: batetik, posta elektronikoa, bordaolaberria@terra.es; eta bestetik, telefonoa, 620 86 86 05. Bezeroei, haragia jatzeko lekua eta ordua zehaztuko dizkiote.

Itxaropentsu dago Alberto Irastortza, beste lekuetan ondo funtzionatzen ari baita. “Aurrera jarraitzeko bide bakarra da, baserritarrek zuzeneko salmentarekin hasi beharra dauka”. Dena den, Administrazioa oztopoak jartzen hasiko delakoan dago. “Orain arte Elorriokoa eta



Urkaikon, Zestoan, biltzen dute txekorra. Bertan dute zatitu, poltsaratu eta etiketak jartzeko lekua.

Araban beste bat bakarrik zegoen, baina gero eta jende gehiago omen dabil. Bizkaian izugarriko mugimendua sortzen hasi da. Baserrian jarraitzeko gu geu, gure generoa hobeto saltzen hasi behar gara. Bestela ezin gara bizi. Orain dela 25 urteko prezioetan ari gara generoa saltzen. Etekina bidean gelditzen da. ”.



EHNE sindikatuaren prentsurrekoa Tolosan, pasa den urrian. Gipuzkoako abeltzainak elkartu ziren, haragiaren egoera txarra agertzeko.

EHNE sindikatuaren mezua

Azken urteotan, aldaketa asko izaten ari gara etxeetako elikadura ohituretan (erosketak egiteko era, janaria prestatzen pasatzen dugun denbora, kanpoko produktuen aukera zabal...). Guztion kontsumo ohiturek, askotan uste dugun baino eragin handiagoa dute bertako produktuak ekoizten ditugun baserriarrongan.

Egungo nekazarion egoera larria da benetan. Ekoizpen txikitari oinarritutako baserrietan lan egiten dugu. Ekoizpen mota hau, bertako kontsumo eskaria asetzeraz ez da iristen eta hala ere gure produktuak saldu ezinik gabiltza kasu askotan. Beste kasuetan berriaz, ekoizpen kostuen azpitik saltzera behartuak gaude, industria handiek ekarritako kanpoko elikagaien sarrera dela eta.

Kanpotik hain prezio erakargarrian datozen produktuak, ez dakigu zein baldintzatan ekoiztiak izan diren eta garraioan iragandako ordu luzeek ezin digute inondik inora kalitatezko jakiak direnik baieztatu. Bestalde, kantitate horiekin konpetitza ezinezkoa zaigu hemengo baserriarroi, honek guztiak azkenean gure nekazaritzaren desagertzea dakarkigularik, gizartean sortuko litzatekeen hutsunea begien bistan geratuz.

Mundu globalizatu honetan, industria handiek ezarri duten elikadura ereduaren aurrean, ondorengo abantailak ditu gure baserrietan mantentzen dugun ereduak:

- Norbere inguruko elikagaiak: freskoak, garaian garaikoak, tokian tokiko jakiak, berme guztiarekin ekoiztutako kalitatezko produktuak. Herritarrek gertutik kontrolatzeko moduko ekoizpenak, azken finean.
- Nekazaritza jasangarria: lurrarekiko eta ziklo naturalekiko lotura zuzena, bioaniztasuna...
- Nekazaritza soziala: landa ingurune bizi eta jendetsua, merkataritza bide laburrak, merkaturia esku askotan banatua, merkatu eta azokak, erabakiak herri-eskualde bakoitzean...

Baserriarrok, lanean jarraituko dugu kalitatezko produktuak ekoizten, gure larre eta mendiak garbi mantentzen, basoak zaintzen, eta kontsumitzailea informatzen, zor zaigun errekonozimendu eta errespetua lortuko baldin badugu. Zuri, kontsumitzaile, hausnarketarako deia luzatzen dizugu, zure erosketak egiteko moduak baldintzatzen baitu gure biziraupena, elkarrentzako ezinbestekoak baikara.

handiagoa daukala dio. Bilbo inguruan saltzen du. Daukan guztia eta gehiago ere saltzen omen du. Hasi artekoa dela zioen, ahoz ahokoak ondo funtzionatzen duela. Jendeak, baserriera etorri, ganadua ikusi, zer jaten duen ikusi... eta lasaitu egiten dela. Elorrioko honek 100 bat bezero dauzka eta gero eta gauza gehiago eskatzen dizkio. Jendeak bertako produktu naturalak jan nahi ditu”.

Kanpotik haragi asko

Bertan produzitutako haragia ezin saldurik dabilta baserriarrok. Baina nondik ekartzen da haragia? “Espainiatik, Errumaniatik, Ukrainatik asko. Batzuk gizenduta etortzen dira eta beste batzuk hemen bukatzen dute. 8-9 hilabeterekin ekartzen dituzte eta bukaera, Kataluniako gizenegi handi industrialetan izaten dute. Horko haragia Goierriera asko etortzen da. Guk 4 eurotan saltzen badugu, kanpokoak, 3 eurotan erosten dute. Kanpotik etortzen dena, prezio horretan, ezin da pentsuarekin eta era naturalean hazitakoa izan”, salatu du Irastortzak.

Dena den, “salbuespenak badaude eta hori argi utzi behar da. Badaude harakin batzuk, hemengo haragiarekin ari direnak, ahaleginak egiten ari dira, hemengo defentitzen. Hemengo produzioa defenditzaiekin, ingurumena zaintzen duzu”, azpimarratu nahi izan du olaberriarrok. “Baserriarra baldin badago, baserriarrok ingurua garbitu eta mantentzen du, kultura eta tradizioa mantenduko du. Baserriar-



kutxa

rra bukatzen baldin bada, dena sasiak hartuko du eta suteentzat arrisku latza izango da, Galizian ikusten den bezala. Guk defenditzen dugu, baserritarra egon behar duela, baina dirua irabaziz. Ez orain arte bezala, beti zapalduta eta etekinak beste batzuk jaten. Gure arazorik handiena, haragian bezala beste produktu guztietan, etekina beste batzuk eramaten dutela da. Atzo irakurtzen nuen, adibidez, patata produktoreei 0,12 euroan ordaintzen dietela eta supermerkatuetan 2 euro inguruan saltzen dela. Patata da adibide bat, lurretik hartu, zakuan sartu, itxi, pisatu eta saltzen dena. Ez dago manipulaziorik. Gauzak horrela baldin badaude, ezin da funtzionatu. Baserritarrak ez badu dirurik irabazten, ezin du lanean jarraitu. Modernizatu gara, baina hori mantentzeko diru bat sortu behar da eta prezio horietan ez du ematen. Dirulaguntzekin zuloak estaltzen dira, baina ez dira nahikoak. Gaur badaukazu dirulaguntza, bihar kendu egingen dute... ez daukazu ziurtasunik. Baserritarrak dirulaguntzetaz ahaztu nahi dugu. Gure lana beste edozeinena bezala ordaindua edo errekonozitua izatea, soldata duina izatea, nahi dugu”, gaineratu du olaberritarrak.

Sektorea oso larri

Baserritarrek salmenta-zuzenerako denbora gutxi dutela esaten da. “Denbora falta bai, baina Administrazioa da etsairik handiena. Administrazioak egitura handiak sortu ditu. Iparlat, Gurokela... Baina zer gertatzen ari da? Izugarritzko ikuiluak egin dira eta ixten ari dira. Nik lehen esnebehiak neuzkan. Ikuilua ondo montatuta. Baina oso lotua zen. Haragitakoak jarri nituen, lasaixeago ibiltzeko. Bestela ezin duzu famili bizi normalik egin. Es-



Haragiaren %27 da bertakoa

Alberto Irastortzak baserritik bizitzeko apustuarekin jarraitu nahi du ekimen berri honekin. Baserritari eutsi nahi dio. Baina horretarako, jakina kontsumitzaileek daukate azken hitza. “Egoera honi buelta emateko era bakarra, herritarren kontzientzian ikusten dut. Kontsumitzaileak kontzientziatu behar du, hemengo produktua kontsumitu behar dela, kalitatea daukalako, garraio zirkuitu motzak (txekorrak zenbat eta kilometro gutxiago egingen dituen ikuilutik hiltzegira, askoz kalitate hobea edukiko du) bultzatu... European hiltzegi mugikorrek hasita daude, ikuiluan bertan hiltzeko, ahalik eta estresik gutxiena edukitzeko. Kontsumitzaileek defendatu behar ditu zirkuitu motzak, bertakoa produzitu hobea delako, kalitatea ziurtatzen duelako eta ingurumena zaintzen delako. Kontsumitzaileen teiltuan dago pelota”, dio Alberto Irastortzak. “Kontsumitzen dugunaren %27a bakarrik ekoizten dugu hemen. Eta hala ere ezin saldu gailtza. Hori oso larria da. Oso gutxi ekoizten dugu, gero eta gutxiago, eta ezin dugu saldu. Kontzientzia behar da”, gaineratu du.

Ikastexetako jangelen eta ospitaleen adibidea jarri du Irastortzak. “Gure umeek jangeletan kanpoko haragia jaten dute, catering-ekin funtzionatzen baitute ia denek. Osakidetzan ere berdin. Dena kanpotik ekartzen dute. Kontsumitzaileen eta administrazioaren kontzientzia oinarrizkoa da gure umeen elikadurari garrantzia emateko”.

nearen produkzioa ere oso gaizki dago. Igoera bat egon zen, urtebete iraun zuen eta orain jaitsi egin da. Berriz ere jaistera doa. Jendea inbertsio handietan sartuta dago eta arazo handiak daude. Sektorea orokorrean, oso-oso larri dago. Modernizatzeko ahalegin handia egin da eta kalitate ona daukagu. Ustiaketa txikiak dira, ganadu kopuru handiegirik gabe. Kalitatea ziurtatuta dago eta kontrola ere,

beste leku batzuetan baino hobea dela uste dut. Baina gure generoa ez da ondo saltzen. Sektorea jota dago. Gazte oso gutxi. Modernizatzen baldin bazara, buelta emateko buru piloa jarri behar duzu eta lagun bakarrak nahiz eta makinak-eta edukiki, doble bururekin bizi kalitate oso txarra”, azaldu du Irastortzak.

Bukatzeko, beste salaketa bat ere egin du Alberto Irastortza olaberritarrak:

“baserritarrak baino, baserritarren egituren bueltan bizi den jendea gehiago dago. Laboratorioak, burokrasia eramateko bulegoak, dirulaguntza banatzeko... gustatuko litzaidake jakitea, Administrazioari zenbat diru kostatzen zaion laguntzak banatzea. Teknikoak burokrasia lan horretan dauzkagu, guri kosteak nola jaitsi, etekin gehiago nola atera... aztertzen egon beharrean”.



Xabier Muriel prestatzaile fisikoa

*Cespa-Euskadi pistako
eta Bidelan-Kirolgi
errepideko txirrindulari
taldeetan ari da*

Prestatzaile fisiko lanetan aritzen da hainbat kirolarirentzat, Cespa-Euskadi pistako txirrindulari profesionalen taldearentzat eta Bidelan-Kirolgi txirrindulari talde afizionatuarentzat. Azken talde honetako zuzendaria ere bada.

Horrez gain txirrindu gaineko gorputz-jarrerara egokitzen die zenbait txirrindulariari. Hau dena Majori kiroldegian egiten duen kudeatzaile lanak libre uzten dion denboran egiten du 27 urteko Xabier Muriel zaldibitarrak.



aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66
Aulia-enea
LEGORRETA




ondoeta

GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK

E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com
☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72
201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

Bidelan-Kirolgi errepedeko txirrindulari afizionatu taldekoekin martxotik irailera denboraldia bete-betea izaten du eta urrian atsedena hartu ondoren, azaroan hasten dira denboraldi berria prestatzen: entrenamenduak jarri, kontzentrazioak egin... Urritik martxora munduan zehar hara eta hona ibiltzen da, pistako talde profesionalarekin. Orain Ordiziako Majori kiroldegiko kudeatzaile lanean ari denez, denbora gutxiago du txirrindulariekin bidaietara joateko.

Txirrindulari profesionalak errepedeko denboraldia hasi berri dute eta afizionatuen lasterketak oraintxe hasiko dira, une egokia beraz, gaztea izan arren txirrindularitza barru-barrutik eta alde desberdinetatik ezagutzen duen Xabier Muriel zaldibitarren lana eza-gutzeko.

Asko aldatzen al da txirrindularitza errepedetik pistara?

Bai. Batean, belodromo barruan, estalian, eta mundu mailako txapelketetan aritzen gara. Australian, Kolonbian, Pekinen egon gara... eta orain Danimarkara joango gara. Errepedekoan, berri, kanpoan izateaz gain, txirrindulari gehiago izaten da, eta lasterketa gehienak Estatu mailan jokatzen dira; gehienez Frantziara joaten gara.

Beraiekin joaten al zara?

Orain dela hiru urte hasi nintzen Cespa-Euskadirekin eta Los Angelesen, Moskun, Australian... egon nintzen. Iaz ere asko bidaiatu nuen. Baina orain Ordizian daukadan lan berri honekin, Australiara bakarrik joan ahal izan naiz. Orain Danimarkara joateko asmoa daukat. Denera ez dago helderik.

Bidelan taldearekin jarraituko dut baina ezingo dut orain arte bezala, zuzenean, hainbeste parte hartu. Lehen, errepedeko denbo-



Prestatzaile fisikook pixkanaka-pixkanaka gure lekutxoan egin dugu.

raldian, itzuli guztiak nik egiten nituen. Majoriko lanarekin, inguruko karrera zehatzetara joango naiz. Itzuliren bat ere egingo dut,

nire oporretan-edo.

Zure lana desberdina al da bi taldeetan?

Cespa-Euskadin, neskak eta mutilek osatzen dute taldea,

Leire Olaberriaren domina

Cespa-Euskadi taldeko prestatzeilea denez, joko olinpikoetan brontzezko domina lortu zuen Leire Olaberriarena ere ba da Xabier Muriel. Leire Pekinera Espainiako selezioarekin joan zenez, eta ez taldearekin, etxetik ikusi behar izan zuen Xabierrek haren lorpena: "Inongo telebistatan ez zuten ematen, beno bakarren batean bai, baina Zaldibian ez zen ikusten. Interneten, pantaila txiki batean ikusi nuen zuzenean. Pentsa, zuk prestatzen duzun norbaitek horrelako zerbait lortzea ikaragarria da".

Leire Olaberriak irabazi izanak, izen bat eman dio Xabierri ere, "Olinpiadetan izan da Leireren booma, baina aurretik gauza handiak egina zegoen. Olinpiaden ondoren atara da Leireren prestatzailea naizela. Berea ikaragarria izan da: 'ezezaguna' izatetik erabat izatera pasatu da, erotu egiten dute elkarriketekin. Niri ere jende askok esan dit. Aurretik Munduko txapelketan ikaragarriak egin da zegoen, baina kirol minoritarioa da eta Olinpiadetan ez bada, ez da nabarmentzen".

profesionalak dira. Entrenamenduak jartzea errazagoa da, txirrindularitzarako bizi dira eta horretarako planifikatzen da. Material eta baliabide gehiago daukagu.

Bidelan Gipuzkoako talderik onentsuenetarikoa da eta ez gara kexatzen, baina afizionatuak dira. 18-24 urte bitarteko gazteak dira eta asko edo gehienak, ikasten aritzen dira. Klaseak eta azterketak noiz dauzkaten jakinda jokatu behar da prestatuntza antolatzeke. Biak dira politak. Azkenean lehiaketa lehiaketa da, bai profesionalena eta bai amateurrena. Prozesua berdina da: txirrindulariak inskribitu, txapelketak zuzendu eta denak etxera bueltan, berdina da bai Nafarroara joan edo Australiara joan.

Prestatzaile fisikoaren lana onartuta al dago?

Baietz uste dut, beharrezkoa den gauza bat bezala ikusten dela. Profesional mailan prestatzaile fisikorik ez daukan inor ez dut eza-gutzen.

Dena den, kostatu egin da. Lehen medikuak ziren prestatzen zutenak, baina pixkanaka-pixkanaka prestatzaileak sartzen joan dira. Aurrenekotarikoa Manolo Sainz izan zen. Orain nahiko baloratuta dago gure lana. Oraindik ez erabat, baina nire kasuan bai. Bidelen oso ondo errespetatzen dute nire lana. Gainera zor-tea daukat, zuzendaria izanda txirrindulari bakoitza zein karretara joan erabakitzen dut eta horrekin joka dezaket.

Cespako taldean zuzendari edo manager bezala beste bat dago, eta ni prestatzaile fisikoa naiz. Baina kanpora joan behar denean, askotan bi lanak egiten ditut.

Nori hasi da prestatzaile fisikoaren lana onartzen?

Duela 10 bat urte hasiko zen indarra hartzen, baina, nik uste dut ez dela bukatu, oraindik ez duela bere le-

“Nahi duzunean ondo ibiltzea lortu behar da”

Zein da prestatzaile fisikoaren lana?

Kirolari bati egunero egin behar duena esatea. Hori jakina, zerbaitean oinarrituta behar du. Lehenengo lana da, zer hobetu nahi duzun eta noizko hobetu nahi duzun zehaztea, helburu bat jartzea. Leire Olaberriarekin adibidez, munduko txapelketa prestatzen ari gara, martxoaren bukaeran izango da. Helburua zehaztutakoan, hori lortzeko bidea jarri behar da. Nola zauden, nola egotea nahi dugun eta lana jarri. Beti ikasten ari gara. Eta jakina, egiten ari zaren lana ondo egiten ari zaren jakiteko balorazioak ere egin behar dira. Ondo ala gaizki egiten ari zaren jakin behar duzu. Maila bajuetan medikurik ez dagoenean, arlo guztiak kontrolatu behar dituzu. Elikadura, loa... Geroz eta profesionalagoa denean, medikua eta psikologoa daukazunez, lana zehatzagoa da.

Txirrindulariekin aritzen zara batik bat. Beste kirolen batean ere aritzen al zara?

Futboleantza txirrindularitza ibilitakoa naiz, kirol guztiak gustatzen zaizkit. Jende anonimo asko prestatzen dut: korrikalariak, arraunlariak, Mari Jose Sardonek harri jasozailea... kirol ezberdinak prestatzen ditugu. Taldeko kirolerantz ez gara sartu, horrek entrenamenduetan egotea eskatzen baitu eta horretarako denborarik ez daukagu. Bakarkako kirola diren asko prestatzen ditugu. Niri txirrindularitza gustatzen zait, baina denerako prestatuta gaude. Prestakuntzak ez dira oso ezberdinak. Dena den, gehienak txirrindulariak entrenatzen ditut. Izena edo emaitzak txirrindularitza lortu ditut.

Txirrindularia izandakoa zara, ba al zenuen prestatzaile fisikorik?

Bai, Etor Mendia. Ni prestatzaile fisiko izatera bultzatu nauenatariko bat bera izan zen. Jubeniletan nire prestatzailea zen. Ehuneko ehuneko kaso egiten nion eta esaten baldin banion ekainerako ondo egotea nahi nuela, horrela egoten nintzen. Nik ikusten nuen prestatzailearik ez zuena igual maiatzan egongo zela ondo, baina ez berak nahi zuenean. Lana gustatu egin zitzaidan.

Emaitza ikusi eta bide horri heltzea erabaki zenuen orduan.

Emaitza ez da gehiago ala gutxiago ibiltzea, nahi duzunean ondo ibiltzea baizik. Prestakuntzak prozesu bat dauka eta aurreratzen baldin bazara, bi edo hiru aste egongo zara ondo baina erori egingo zara. Topikoa da baina aurrea oinarri on bat egin behar da, eta gero horren gainean lan egin eta ondo egon nahi duzunean azeleratzen joan. Hori ondo programatzen ez baduzu, nahi duzunean ez zara ondo egongo. Ez dut esaten prestatzailearik gabe hori ezin denik lortu, badago norberaren burua oso ondo ezagutzen dutenak, baina hori urteek ekartzen dute. Baina 25 urtetik behera zaila izaten da hori lortzea.

17-18 urterekin Etor Mendiarekin hasi nintzen, gero IVEFen sartu nintzen eta afizionatuetan taldeak medikua jarri zigun. Beti eduki dut prestatzailea. Azkeneko urtean izan ezik, nik neure burua prestatzen nuen. Baina ez da komeni, hobeto da beste norbaitek hobeto prestatzea. Beste batek jartzen badizu bete egingo duzu baina norberaren burua jarrita, errazago uzten da.

IVEF bukatu ondoren, errendimientu altuko masterra egin nuen Madrilen. Getxoko Teknika Hobekuntzarako Zentroan praktikak egin nituen. Egia esateko, IVEFen ez nuen ikasi. Oso orokorra da. Denerako prestatzen zaituzte: kirol heziketako irakaslea, kudeaketa... Getxon asko ikasi nuen, eta gehiena, Madrilen. Eta nire kabuz, etengabe ikasten ari naiz. Ingelesa ikasten ari naiz, eta artikuluak irakurri eta irakurri.

Gaur egun interneten, informazio asko lor daiteke.

Interneteko informazioarekin kontuz. Ikerkuntzako zentrorik onenak Ingalaterran, Australian eta AEBetan daude batez ere. Haiek argitaratzen duena lortzea diru asko kostatzen da. Normalean IVEFera eta THZra jotzen dut horiek irakurtzera. Interneten jende asko ibiltzen da. Kirola gustatzen zaionak, hor ibiltzen dira interneten hau eta bestea irakurri duela esanez. Ni ez naiz asko fidatzen.

kua hartu. Medikuak, pauta medikoak jartzen ditu, analisiak eta probak egiten dituztu... baina zer entrenatu behar duen eta nola entrenatu behar duen egunero, hori prestatzaileak esaten du. Kirol guztietan medikuntza eta prestatzaile fisikoak bereiztu egin dira. Pixkanaka-pixkanaka gure lekutxoak egin dugu.

Emaitzak ikusten al dira?

Egindako lana emaitzekin demostratu behar da. Lehen entrenatzaileak egiten zuen dena: ze vitamina hartu, ze entrenatu eta psikologo lana. Kirolean emaitzak lortzeko espezifikotasunera joan behar da. Gaur egun,

psikologoak ez izan arren, guk egiten dugu psikologo lana ere. Hurrengo pausoa psikologoak sartzea izango da. Baina dena kostua da eta ez gaude sos gehiegi gastatzeko.

Psikologoaren lana hain beharrezkoa al da?

Ikaragarria da. Kirol guztietan, baina txirrindularitza

oso kirol agonikoa da. Zure muga geroz eta urrutirago eramanez, gero eta emaitza hobekiak lortzen dituzu. Baina horretarako entrenamendu gogorak egin behar dira, presio handia egoten da normalean, motibazioa, antsietatea... Txirrindularitza buruaren eragina ikaragarria dela esaten da, baina

hori landu egin behar da eta psikologoaren lana hori izango litzateke.

Negu honetan kirolaren gogortasunari, entrenatzeko eguraldia txarra gehitu zaio.

Profesionalen mailan ez daukagu arazorik, belodromoak estaliak baitira. Ekonomikoki hobeto egoten direnez, eguzkiaren bila ere joaten dira. Baina afizionatuetan, ikasleak dira... Momentu honetan, dagoen eguraldiarengatik, taldea, nik nahi baino bizpahiru aste atzeratuagoa doa. Etxean entrenatzeko arrabola hor dago, baina ez da berdina, bero asko pilatzen da eta

Sponsorrak huts egiten hasi dira eta zulo batean gaude.

Baina nik uste dut aterako garela.

hiru orduko entrenamendu egitea ezinezkoa da. Badaude egiten duten astoak, baina ordu eta erdi baino gehiago ezin da egin arrabolan, gorputzarentzat ez da ona. Batzuk Benidorm aldera joan dira entrenatzera... Badaude txirrindulari batzuk, nahiz euria nahiz elurra egin, entrenatzera joango direnak. Baina negua gogorra izaten ari da. **Sakrifizio handiko kirola da txirrindularitza.**

Egoera fisikoa da garrantzitsua, eta ez teknika. Pelotan egoera fisikoa hain ona ez bada ere, teknika erabil dezakezu; futboleko ere bai... Baina txirrindularitzan dena egoera fisikoa da. Hori hobetzeko, entrenatu, entrenatu eta entrenatu egin behar da. Ez dago beste trukorik. Hainbeste entrenatzen denez, deskantsatu ere egin egin behar da. Deskantsatzerakoan, paranda egiten baduzu eta mendira joaten bazara, ordura arte egindako guztia alferrikakoa da. Zentzu horretan da sakrifikatua. Hobetu nahi baldin baduzu, entrenamenduan sakrifikatu behar duzu, eta nik uste gehiago kostatzen dena, zure aisia, zure bizia sakrifikatu behar izatea dela. Baina gustuko lekuan aldaparik ez.

Ni gustura ibili nintzen. Berriz jaioko banintz ere txirrindulari izango nintzateke. Asko zaintzen nintzen, lagun onak egin ditut. Txirrindularitza uztea erabaki nuen, baina txirrindularitzaren mundua utzi gabe. Txirrindulari bezala asko kostatzen zitzaidan eskiatzera ez joatea, fronteni-sean ezin aritzea, sagardo-



tegira ezin joana... hori dena moztea gogorra egiten zitzaidan. Entrenatzea ez zitzaidan kostatzen baina beste guztia moztea bai. Eta jakina, emaitzak nahi badira, hori dena moztu egin behar da. Norberak ikusi behar du, baloratu egin behar da. Nik modua neukan txirrindularitzaren munduan jarraitzeko eta hartutako erabakiaz ez naiz damutzen.

Baina badirudi txirrindularitza ez dagoela momenturik onenean.

Ez. Talde gehiago desageritzen dira sortu baino. Txirrindularitza sponsor pribatuetatik bizi da. Eta kirol bezala bizi dituen momentu gogorrari, krisi ekonomikoa gehitu behar zaio. Sponsor pribatuek publizitatean gastatu beharrean, etxerako gordetzen dute. Sponsorrak huts egiten hasi dira eta zulo batean gaude. Baina nik uste dut aterako garela.

Txirrintu gaineko gorputz-jarrera

Ikasketen bukaeran Getxoko Teknika Hobekuntzarako Zentroan praktikak egin zituen Xabierrek eta ikerketa proiektu bat aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzan. Txirrindulariaren txirrintu gaineko gorputz-jarrera hobetzeko bi urteko ikerkuntza bat egin zuen, 30 profesionalekin batera. Ikerketa hartatik ondorioak atera zituzten eta ondoren argitaratu. Gustura dago izandako harrerarekin.

Orain arte txirrintu gaineko gorputz-jarreraren inguruan dauden ekuazioak oso orokorrak dira Xabierren ustea. "Topiko pilo bat dago: eserlekua atzera edo aurrera jartzea, femurraren luzerarekin lotuta dagoela; manillarren zabalera bizkarraren zabalera izan behar zuela... Gorputz-jarrera jekokitzea askoz ere espezifikoa eta banakakoa da. Guk frogatu genuen, erlazio nagusia zela, oinaren neurria, txirrindulariaren altuera eta hankaren luzera, beste guztiak ez daukala ia eraginik". Ikerketak beste gauza bat ere hartzen du kontutan: bakoitzak, pedalei eragiteko teknika ezberdina du eta horren arabera gorputz-jarrera ere ezberdina jarri behar da. Bizikletan baino gehiago, akatsa, kala (oinetakoen euskarria) nola jartzen dena. Gehienek hori eramaten dute gaizki.

Xabier Muriel txirrindulariei gorputz-jarrera egokitzen aritzen da, baina, ez da horretatik bizi. Hala ere bertako txirrindulariek aintzat ez dutela hartzen kexu da zaldibitarra. "Kanpokoek kasu gehiago egiten dute, etxekeok baino. Madrildik, Murtziatik, Andaluziatik... jendea etorri zait gorputz-jarrera egokitzen. Egokitzen ditugunak gustura daude aldaketarekin".

ZUBARA
Eraikuntzak s.l.

Promoziok, Eraikuntzak, Erreformak... 943 65 34 93 - 649 46 32 89 ABALTZISKETA

TOLDOS OLANAK
AGUSTIN s.l.

Jose Agustin Jauregi


Tel. eta Faxa: 943 886 558
Poltsikoko tel.: 616 698 288

Zubi-Erreka Industrialdea, 42 LAZKAO

toldosagustin.com
auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

Ataungo Aita Hilario:

San Gregorioko Kaputxino Bat Txilen Dotrina Irakasten



Izaskun Egiguren ataundarrak, 2006. urtean, Ataungo Udalak deitutako IX. «Ataun Aztergai Beka» lortu zuen honako izenburu hau zeraman proiektuarekin: **D. Juan Arin Dorronsoro (1892-1972):** ataundar bat bere herriaren iragana arakatzen. Proiektua burutu eta lana bukatuta entregatu zenetik urte eta erdi baino gehiago igaro delarik, Ataungo Udalak ez du oraindik lana argitaratu,

Ataungo Aita Hilario, edo Frantzisko Arin Dorronsoro, jaiotzeko izenari kasu egiten badiogu, Ataungo San Gregorioko Tellazpi base-rrian jaio zen 1895ko urriaren 4. egunean. Frantzisko zortzi senidetan gazteena zen, horietako bi umetan edo gaztetan hildakoak, eta, San Gregorioko haurtzaroa eta eskola urteak pasatu ondoren, garai hartan beste asko bezala, Euskal Herritik urrutira eramango zuen erlijioaren bidetara ekin zion ataundarretako bat izan genuen.

Etxean elizgizon ugari

Elizgizon izateko joerak aurrerakari ugari zuen jada Arin-darren familian Frantzisko,

1913an, Altsasuko kaputxinoen ikastetxean sartu eta ordena horretako fraide izateko bidean jarri zenean. Batetik, aitaren aldetik bi osaba zituen erlijioari lotuak: Felipe, apaiztu berritan Zegaman jardun ondoren hau ere kaputxino sartu eta fraide izandakoa, eta geroago, fraidetzatik atera zelarrik eta Araba aldean nahiz Ataungo Aian egon ondoren, 1913an San Gregorion apaiz zegoena; eta Migel Antonio, kaputxinoa, Ataungo Frai Andres izenarekin ezagunagoa, eta Hondarribiko bere komentua-arentzat Gipuzkoa osoan limosna biltzen ibiltzen zena.

Bestalde, Frantziskoren anaietako hiruk ere erlijioa-

ren bidea hartu zuten ordurako. Felipe izan zen lehena, bigarren senide zaharrena (1881-1941). Gasteizen erlijio ikasketak osatu ondoren, ordea, ez zen apaiztu, eta aukera desberdinak probatu ondoren epaile izaten amaitu zuen. Aipagarria da honi buruz Enrike Zurutuza Azpeitiko ataundarrak iaz aurkeztu zuen liburu interesgarria. Felipek, bere epaile lana burutzeaz gainera, Zuzenbide alorreko hainbat lan argitaratu zituen (Zurutuzak aipatzen dituenak eta beste bi, gutxienez, aipatzen ez dituenak). Elizaren zerbitzura sartu zen hurrengo Juan izan zen, Frantzisko-ren aurreko bigarren senide

baina denbora horretan, eta jada bekatik kanpo, egileak beste hainbat material biltzeko aukera izan du, tartean D. Juan Arin etnografo ataundarraren anaia zen Aita Hilario kaputxinoari buruzkoak. Izaskun Egigurenek bildutako material horrekin eta nik neronek jasotako beste batzuekin sortu da artikulua hau, D. Juan Arini buruzko lan horren osagarri txiki modura-edo.

gazteena eta dagoeneko lan honen sarreran aipatu dudan Ataungo etnografo nekazaria (1892-1972). Ik. Goierriarra aldizkari hone-tan bertan 1994an bere lanari buruz argitaratu zen artikulua (60. zb., 26-27. or.). Gasteizen 1909-1917 bitartean apaiz ikasketak egin eta Araban pare bat urtez egon ondoren, Ataungo San Martinen apaiz eta geroago erretore izan zen urte askoan. Erlijioan sartu zen hurrena Jose Manuel izan zen, senideetan bosgarrena (1887-1936). Jose Manuel Loiolan egon zen 1912-1915 bitartean eta anaia jesuita eginda irten zen handik, hots, apaiztu gabeko jesuita, eta Paracuellos del Jara-

mako sarraski ezagunean erail zuten 1936an, Espainiako Gerra Zibila hasi eta handik hilabete gutxira.

Frantziskok ere, bada, Altsasun 1913tik 1921era bitartean fraide kaputxino izateko ikasketak egin ondoren, Iruñean 1921eko martxoaren 26an apaiztu, eta apirilaren 3an eman zuen bere lehen meza edo meza berria. Lizarran izan zen, hots, Felipe haren anaia une hartan epaile zegoen herrian. Ordurako, kaputxinoen artean zen ohiturari jarraituz, fraide gazteak Frantzisko Arin Dorronsoro jatorrizko izena aldatu, eta honako beste hau hartua zuen bere erlijio bizitzarako: Ataungo Aita Hilarion, edo Hilario, bada ofizialki Hilarion izan arren Hilario izan baitzen, praktikan, berak erabili zuen izena. Seguru asko ondoren etxera bidaliko zuten aste batzuetarako, aspaldiko partez, ikasketak bukatu arteko guztian, ohi zenez, ez baitzen etxerako baimenik ematen. Seguruenera, une hartan egindakoa da, hain zuzen, hemen ondoan doan argazkia.

Aita Hilario Txilen

Ordenako agintariak, handik gutxira, Txilera bidali zuten Aita Hilario. Honela kontatzen du D. Juan Arinek, Ataungo elizgizon eta emakumeez argitara zuen liburuan bere anaiari eskaintzen dion atalean: «Txileko



Aita Hilariok 1935ean Europara egin zuen bidaiaren aita eta anaiekin Ataunen ateratako argazkia. Goiko ilaran: Jose Maria eta D. Juan apaiza. Bebeko ilaran, ezkerretik eskuinera: Jose Manuel (jesuita), Azentzio (guztien aita), Aita Hilario bera eta Felipe (epailea).

leko Viña del Mar hirira bidali zuten aurrena, eta 1921eko ekainaren 24an abiatu zen hara». Liburu horretan bertan D. Juanek dioenez, Europara bidali omen zuten 1935. urtean hemen dotrina irakasteko erabiltzen ziren metodo berriak ikastera, eta jaiotetxea ere bisitatu omen zuen bide batez. European urtebete pasatu eta Txilera itzultzean hango hiriburura bidali zuten, Santiagora, eta bertan hil zen Aita Hilario 1949ko apirilaren 3an, hogeita bost urtez jasan zuen diabetes gogor baten ondorioz.

Gaztelaniaz ondo ikaslea izan zen Txilera iritsi ondoren egin behar izan zuen lehenengo gauzetako bat. Aita Hilariorekin ikasi eta Txileko urte guztiak harekin pasatu zituen kaputxino arabar batek, Aguraingo Aita Prudentziok, honela kontatu zuen ataundarra hil zenean honi eskaini zion hilberri ohar ederrean: «Aita Hilariok, familia euskaldunekoa zelarik, oso berandura arte ez zuen gaztelaniaz ikasi, eta inoiz ez zuen erabat ondo hitz egin. Baina Aita Hilarioren apostolutza lana, haren bizi guztiko la-

na, Cervantesen hizkuntzan garatu zen hitzez nahiz idatziz, berari hain zaila eta nekeza egiten zitzaion hizkuntzan. Aita Hilariok Txilera iritsi bezain pronto ulertu zuen hori, eta gaztelaniaren gramatika ikasteari ekin zion edozein hunkitzeko moduko gogo eta bihotzez: adjektibo eta aditzen inguruko arazorik nimiñoenetan katramilatu zen, puntu eta komen misterio ilunak konprenitu nahirik burua nekatu zuten... Hil baino egun batzuk lehenago nire gelara etorri zen, bakean bizitzen uzten ez zion buruhauste



**UNIBERTSITATEA
BIZITZEKO
PREST!**

ATE IREKIAK

OTSAILAK 21 - 10:00-13:00 larunbata *etorriko zarela jakinarazi!*

BIDASOA AULA MAGNA Tel.: 943 63 91 29 // ioiartzabal@bidasoa.eteo.mondragon.edu

ONDOKO TITULAZIO HAUEK ESKAINTZEN DITUGU:

- > Enpresa Administrazioa eta Zuzendaritza Gradua
- > Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Gradua

ENPRESA
ZIENTZIEN
FAKULTATEA
FACULTAD DE
CIENCIAS
EMPRESARIALES



**MONDRAGON
UNIBERTSITATEA**

www.eteo.mondragon.edu



Aita Hilario, behean eskuinetara. Berarekin, gurasoak eta beste zenbait senitarteko. Ameriketara joan aurretik 1921ean ateratako argazkia.

larri bat argitu nahian: “Aizu —esan zidan—, honako paragrafo honetako puntu eta koma hauek kentzerik ez al litzateke izango?”.

Baina zer egin zuen Aita Hilariok Txilen? Guk egingadako galdera bati erantzunez Santiagoko kaputxinoek bidali diguten mezu batean ezin egokiago dator adierazia: «Katekesi gaietan aditua izan zen, aditu bikaina, bai teoriari eta baita praktikari dagokionez ere». (Mezu horretan, bide batez, eta D. Juan Arinek bere liburuan dioenaren aurka, Aita Hilario beti Santiagon bizi izan zela esaten zaigu, Txilera iritsi zenetik hil zen arte guztian). Dotrinaren irakaskuntzaren alorrean zuen autoritate horren ondorioz, Santiagon 1938an egin zen I. Katekesi Gaietako Batzar Nazionaleko idazkari nagusi izendatu zuten Aita Hilario, bilkura horretan bestelako zenbait kargu eta ardura emateaz gainera. Batzarraren ondoren, halaber, Katekesi Gaietako Idazkaritza Nazionaleko idazkari ere izan zen kaputxino ataundarra.

Distira ematen duten kargu hauez aparte, orde, eta D. Juan Arinen li-

buruan irakur daitezkeen beste hainbat lan eta eginkizun ahaztu gabe, Aita Hilarioren Txileko egonaldia bi emaitza nagusi izan zituela esan dezakegu. Teoriaren alderditik, argitaratu zituen lanak aipatu behar lirateke, liburu txiki bat eta beste lan handi bat, hiru tomtan. Alderdi praktikoari dagokionez, Aita Hilarioren egitekorik gustukoena aipa dezagun, ikastaro nahiz gau eskola nahiz bere gain ziztuen hezkuntzarekin lotuta-

ko beste egitekoen artean berarentzat kuttunena omen zena: Santiagoko kaputxinoen parrokiaren haurrei dotrina irakastearena. Sekulako ume saila biltzen omen zen Aita Hilarioren dotrina klaseetara, eta, Santiagoko kaputxinoen komentua eta eliza kokaturik zeuden langile auzoko kaleetan kaputxinoen bat ikusten zutenean, edozein zela ere, ohikoa omen zen hango haurrek «¡Adiós, Padre Hilario!» urrutitik oiher egi-

tea, munduan beste kaputxinoen ez balego bezala.

Horiexek, bada, beste batzuen artean, Aita Hilarioren Txileko egonaldia emaitza ugariak, gazterik hil zen arren eta nahiz bere bizitzan osasun arazo franko eduki. Izan ere, eta itxura denez, gaixoardietan ere Aita Hilariok ahalegina lanean segitzen baitzuen, Aguraingo Aita Prudentzioren arabera: «Hospital del Salvador izenekoa erietxean denboraldi luzeak igaro behar izan zituelarik, ia etxekotzat hartzen zuten hango mediku eta erizainek: Aita Hilario denek ezagutzen zuten, eta denek zuten haren umore onaren berri. Osasunak okerrera egiten zion egun beltz haietan ere, gaitzak gorputza erabat jota uzten zionean, ohetik jaiki ezinik, hura han aritzen zen, liburu artetik burua altxatu gabe, apunteak eskuetan zituela eta idazluma etengabe dantzatzeko, gaixotasun kontuak alde batera utzi eta lanean erabat murgilduta: bateko paragrafo bat ezabatu, beste esaldiren bat zuzendu, hurrena dudako koma batekin zer egin erabaki... perfektioaren bilaketa etengabe». Aita Hilariori bere lanerako gogoia eta umore



Santiagoko komentuko kaputxinoen komunitatea 1936an. Gebienak nafarrak dira bi gipuzkoar, bi arabar eta bizkaitar bat kenduta. Atzeko ilaran ezkerretik seigarrena da Aita Hilario. Bosgarrena, berriz, Aguraingo Aita Prudentzio da, artikulu bonetan birritan aipatzen den kaputxino arabarra.



ona zailtasunak gainditzeko lagungarri izan zitzaizkion, beraz, eta perlesiak jota eskuin eskua elbarri gelditu zitzaionean ere, ezkerrekin sinatzen ikasi eta bere idazteko makina txikiak martxan jarraitu omen zuen.

Idatzi zituen lanak


Ameriketara idatzi zituen lanei dagokienez, gorago esan dut jada bi izan zirela, askotan goizeko ordubiak edo hirurak arte lanean jardun izanaren ondorio. Santiagon 1930ean argitaratu zen 29 orrialdeko lantxoa izan zen lan horietan lehenena: Programa de la enseñanza de la doctrina cristiana, con ejemplos del Antiguo y Nuevo Testamento. Bigarrena katekistei beren zereginean laguntzeko gida da, Buenos Airesko argitaletxe baten eskutik 1942-43 urteetan Txilen inprimatua: Guía del catequista según el método psicológico de Munich. Aita Hilarioentzat bere bizitzako lana izan zen hau, lan mardula, 400na orrialde inguruko hiru alez osatua (ale bakoitza kurtso bati dagokio). Gaur egunerako zaharkitua geratu den arren, Hego Ameriketara bere garaian nahikoa arrakasta izan zuela dirudi. Bigarren edizioa prestatzen ari zen Aita Hilario hil zenean, eta 1952. urtean atara zen

azkenik bigarren edizio hori. Brasilen ere argitaratu zen, 1950. urtean, portugesez itzulita.

Eta honaino bere bizitzaren erdia baino gehiago Euskal Herritik kanpora igarotzen zuten ataundar honen bizitza eta lanaren berri labur hau. Esan dezagun, ordea, eta amaitzeko, ez dirudiela Txileko lanek eta hainbeste neke eman zizkion bere osasun eskasak Aita Hilario bere herria eta jaiotetxea ahaztarazi zizkietenik. Honako hau idatzi baitzuen, izan ere, D. Juan Arinek bere liburuan dioenez, Atauna 1949. urtearen hasieran bidali zuen azken gutunean: «Egunetik egunera gehiago gustatzen zait Txileko bizitza: eguraldi ezin hobea, jende oso ona eta hiriburu modernoa, milioi bat biztanle baino gehiagokoa eta gauzarik berrienak eta aurreratuenak dituena. Hala eta guztiz ere, askotan etortzen zaizkit burura Ataun nire herria, Tellazpi nire baserria eta, batez ere, maite ditudanak: anai-arrebak, ilobak eta lagunak. Izan ere, Ameriketako handitasuna edonor harritzeko modukoa izan arren, egia da baita ere odolaren indarrak tira egiten duela, eta norbera jaio den lekuaren oroimena ere hor geratzen dela, betiko».



Aita Hilario 1942-43an argitaratu zuen katekistentzako gidaren lehenengo edizioa. Lehenengo alearen kanpoko eta barruko portadak.



Aita Hilario euskaraz

Arrazoiak ditut pentsatzeko Aita Hilario, lehenago aipatu diren bi liburu horiez gainera, artikuluak ere idatzi zituela. Goierritarra aldizkariak uzten didan tarte hau gehiegi luzatzea litzateke, ordea, orain gai horri helduko banio, eta ez naiz horrelako xehetasunetan sartuko. Aipatu nahi nuke, hori bai, artikulu horietako bat behintzat euskaraz idatzi zuela, Argentinako hiriburuan urte askoan atara zen La Baskonia aldizkari ezagunean. Aita Hilario Ameriketara iritsi eta handik gutxira argitaratu zuen artikulu hori, 1922ko urriaren 20ari dagokion 1.046. zenbakian (25. orrialdean). Pernando amezketarraren pasadizo ezagunenatariko bat da, eta esango nuke gatz gehiegirik gabe kontatua dagoela, baina testigantza gisa nire iritziz duen balioagatik hemen haren kopia bat ezartzea pentsatu dut. Bitxikeria modura, artikuluak daraman sinadura nabarmendu daiteke: Sabino Aranaren izendegiri jarraituz, Illari sinatzen du, Ataungo beste kaputxino batek, Sabiagako Manuel Apalategi edo Ataungo Aita Bonifaziok, zenbait urte geroago Bonipagi sinatzen zuen bezalaxe. Artikulu amaierako «Ataun'dar I. A.» sinadura, beraz, honela irakurri behar da: «Ataun'dar Illari Aita (edo Aita)». Ondoren datorren «O. M. Cap.» latinezko laburdurak, berriaz, Aita Hilario zein erlijio ordenatako kide zen adierazten digu: «Ordine Minorum Capuccinorum».

Azken oharra. Eskerririk asko Arin familiari (Juani, Jose zenari, Tereri eta Mari-beli) emandako datuengatik, eta eskerririk asko halaber, artikulu hau moldatzeko emandako laguntzagatik, F. J. Cabodevilla eta T.

Azcona Iruñeko kaputxinoen komentuko liburutegiko eta artxiboko arduradunei, eta baita Lazkaoko beneditarren komentuko J. J. Agirre liburuzain eta artxibozainari ere.

Fidel Altuna Otegi

Beasain

Otsaileko ekintzak

Otsailak 13, ostirala:

22:15ean: Antzerki Garaia: 'Lola ikusten baduzu esan aberatsa dela'. Usurbe Antzokian.

Otsailak 14, larunbata:

16:00etan: XVIII. Doinu zahar eta aurreku txapelketa, Usurbe Antzokian.

Otsailak 18, asteazkena:

17:30ean: Ipuin kontaketa: 'Kamishibai', Udal Bibliotekan.

Otsailak 19, osteguna:

21:00etan: Zine kluba: 'Mil años de oración', Usurbe Antzokian.

Otsailak 21, larunbata:

16:00etan: Xake partida: Alfil A-Bearun Bera; Alfil B-Billabona B. Ezkiaga ludotekan.

11:30ean: Kalejira herrikoia inauterietako dantzekin, Ostadar dantza taldearen eskutik.

17:00etan: Haur zinea. 'RH+Sevillako banpiroa', Usurbe Antzokian.

La Salle ikastetxearen mendeurreneko ospakizuna

Beasaingo La Salle ikastetxeak mendeurrenaren ekitaldiekin jarraitzen du. Otsailaren 24an, hitzaldia izango da, Ikastxeko areto nagusian, arratsaldeko 7etan: Gaia: 'Los nuevos adolescentes: familia y escuela'. Hizlaria: Javier Elzo.

Beasain

Arrastakarekin Castillo de Acher eta Petrafitxara

Beasaingo Arrastaka Mendi taldeak, otsailaren 21 eta 22rako, mendi irteera antolatuta du. Bi mendi igotzen saiatuko dira: larunbatean, Castillo de Acher (2.390 m.) eta igandean, Petrafitxa (2.188 m.). Echo Bailarako Gabardito aterpetxean lo egingo dute mendizaleek. Irteera honetan parte hartu nahi dutenek, bilera egingo dute otsailaren 17an, Antzizar Kiroldetxean, arratsaldeko 7,30etan. Mendi Federazioko baimena edukitzea beharrezkoa da irteeran parte hartzeko.

Ormaiztegi

Sahararen aldeko krosa

Otsailaren 22an, III. Sahara-krosa jokatu da Ormaiztegin, goizeko 11etan. 10 kilometroko ibilbidea egin behar dute lasterkariek, herrian prestatutako zirkuituan. Izen-ematea, www.sahara-cross.com web gunean egin daiteke. Lasterketa amaitutakoan, haurren txanda izango da.

Gabiria

Rally sprinta

Otsailaren 15ean Gabiriako rally sprinta jokatu da, arratsaldeko 3etan hasita. Korta jatetxetik hasita.


SILVIA MIRASCASAYAS
 ODONTOLOGOA
 KOL. Zka. 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
 SAN INAZIO KALEA, 2
 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

ALDANONDO GARAJEA
 MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
Filtroak, olioak, engrasea
Frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

Goierritarra

943 16 00 56
goierritarra@goierrikohitza.info

GOIERRIKO hitza 

943 16 00 56
goierri@goierrikohitza.info

Ordizia

Kauta taldearen kontzertua

Ordiziako Udaleko Euskara eta Kultura sailek antolatutako kontzertuen barruan, otsailaren 20an, Kauta taldearen kontzertua izango da, Herri Antzokian gaueko 10,15etan.

Ordizia

Argi-Berri mus txapelketa

Otsailaren 14an jokatu da Ordiziako Argi Berri Elkartean XXXII. Mus Txapelketa azkarra, arratsaldeko 4,30etan hasita. 4 erregetara jokatu da, 6 hamarreko eta 3 ustelera. Bikoteko 40 euro ordaindu beharko da. Bikote irabazleak 1.500 euro eta txapelak jasoko ditu. Bigarren bikoteak, 800 euro; hirugarrenak 400 euro; laugarrenak 200 euro; bosgarrenak arkume bat eta 2 txuleta (Xixio Mujika harategiak emanak); seigarrenak arkume bat eta txuleta (Siglo XX harategiak eta Aliproxek emanak); zazpigarrenak 4 afari, Oteñe erretegiak; eta zortzigarren bikoteak, 4 afari (Begiristain sagardotegian). Herriko lehenengo bikotearentzat, bi txuleta emango ditu Ioar harategiak emanak egongo dira. Elkarteko lehen bikoatearentzat berriz, legatz bat, La Paz tabernaren eskutik.

Ordizia

Makrobiotika ikastaroa

Makrobiotika ikastaroa antolatu dute elkarlanean Goierriko Baratzak, Bioqirosek eta Irriki elkarteak. Otsailaren 12rako eman behar da izena, eta klaseak otsailaren 14an hasiko dira, 09:30etik 14:00etara. Antolatzailea: Goierriko Baratza, Bioqiros eta Irriki elkarteak.

Ikaskide

irakaskuntza eta pedagogia

Joan Iturralde, 5 - Beasain
943 160 120 (arratsaldez)
www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA:

Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, moduluak

UNIBERTSITATE MAILA:

Enpresaritza, Injeniaritza, Kimika eta Fisika

INFORMATIKA:

Mekanografia, Word, Acces, Excel

IKASKETA TEKNIKAK

INGELERA:

Maila guztiak, PET, First Certificate, mintza praktika

Eskaintza berria: **FRANTSESA**

Ordizia

Kaldereroak

Otsailaren 14an, iluntzeko 7,30etan, Kaldereroen desfilea izango da herrigunean, Inauteriak iragarritz. Gara-garria plazatik abiatuko dira. Handik Martinez jatetxe parera joango dira, gero Urdanetaren estatua parera eta Plaza Nagusian bukatuko dute.

Segura

Hartzaren esnaera

Otsailaren 20an ospatuko dituzte inauteriak Seguran, 'Hartzaren esnaera' ikuskizunarekin. Jarraian duzue egitaraua:

15:00etan: Laiotz Herri eskolako ikasle eta irakasleek mozerro eta dantza festa izango dute. Jarraian, txokolate jana.

18:30ean: Hartz zaina eta uxatzaileak kalez kale ibiliko dira. Ongi-etorria Erremerteriko perratokian egingo zaie, txistulariekin, trikitilarekin eta jorrai dantzarekin.

Ondoren: Aspilla dantza taldearen emanaldia, plazan.


Jarraian, 22:00ak arte: disko festa haurrentzat, Legazpiko Gurutz Muguruzaren eskutik.

Lazkao

Keu Agirretxeren kontzertua

Otsailaren 13an, gaueko 10etan, Areria Kultur gunean, Keu Agirretxe eta Kemen Lertxundiren emanaldia izango da.

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobek"



K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44



Inauteriak Seguran 1978an

1978ko argazki hau Segurako ikastolan 1978ko inauteritan egindakoa da. 1969an eta 1970an jaiotakoak 2. eta 3. mailan zebiltzan garaian.

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Jon Alustiza, Bakarne Telleria, Izaskun Izagirre, Gurutz Aldanondo eta Diego Aldanondo.

2. ilaran: Maixabel Oiarbide (andereñoa), Gurutze Etxeberria, Aitor Ariztimuño, Joseba Alustiza eta Jaxone Telleria.

3. ilaran: Jon Gotzon Osinalde, Xabier Alustiza, Gorka Izagirre, Iñaki Rekondo, Mari Jose Arrondo, Nere Areizaga, Imanol Ugalde, Nekane Alustiza, Bakarne Aranburu eta Axier Alustiza.

Beheko ilaran: Irune Etxeberria, Mari Kontxi Artola, Karmele Etxeberria, Maider Intsausti, Jon Ariztimuño, Andoitz Telleria eta Xabier Ormazabal.

Arriak parrilan

© 943 65 21 76

ZALBIDE

TOLARE
SAGARDOTEGIA

SSANGYONG

ARANDIA

GARAJEA

Autoen konponketa

LADA

N-1, z/g Iurre Auzoa OLABERRIA ☎ 943 88 09 47

Kol. zkia.: 764

Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Implantologia
Periodontzia
Artikulazio eta ahoko minak

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo

barne diseinua
dekorazioa

Garai berrietarako
ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN
 TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
 e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com

Goierritarra



GOIERRIKO

hitza



Abantailaz betetako elkarlana

Harpidedunen abantailak:

Egunero Hitza eta hamabostero Goierritarra etxean jasoko dituzu.

Zorion-agurretan deskontuak.

Zozketetan parte hartzeko aukera.

Harpidetza txartela

Urteko kuotak:

Goierritarra 27 euro **Goierri**ko **hitza** 67 euro
 Egin bat aukeratutako kaxan

Goierritarra + **Goierri**ko **hitza** 72 euro

Izen-abizenak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....

Telefono zenbakiak:.....


NAN:.....

Kontu zenbakia(20 digitu):.....

Bidali txartel hau helbide honetara:
 Goierritarra, Urbialde plaza 7 behea, Beasain

Harpidedunen arreta zenbakia: 902 82 02 01

INAUTERIAK 2009



MOZORRO DENDA

Elbarrena industrialdea - ZALDIBIA
Tel.: 943 888 232
www.jaiakdenda.com - jaiak@jaiakdenda.net

Ordutegia:

Astelehenetik larunbatera: 10:00etatik 13:00etara
15:00etatik 20:00etara

UMEEN MOZORROAK

Majori,12 - ORDIZIA

